



ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA
Aniztasuna, Bizikidetzeta eta Belaunaldiarteko
Elkartasun Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO
Dirección de Diversidad, Convivencia y
Solidaridad Intergeneracional

Agindua, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko sailburuarena, pertsona transen administrazio-dokumentazioari buruzko dekretu-proiektua aldez aurretik onartzen duena.

Orden de la Consejera de Bienestar, Juventud y Reto Demográfico por la que se aprueba, con carácter previo, el proyecto de Decreto sobre documentación administrativa de las personas trans.

Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko sailburuaren 2026ko ekainaren 12ko Aginduaren bidez, pertsona transen administrazio-dokumentazioa arautzen duen dekretu-proiektua egiteko prozedurari hasiera eman zitzaion.

Mediante la Orden 12 de junio de 2026, de la consejera de Bienestar, Juventud y Reto Demográfico, se inició el procedimiento de elaboración del proyecto de Decreto por el que se regula la documentación administrativa de las personas trans.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 12. artikulua ezartzen du xedapen orokorrak egiteko prozedura xedapen horien gaiaren arabera eskumena duen saileko sailburuaren agindu baten bidez hasiko dela.

El artículo 12 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General establece que el procedimiento de elaboración de las disposiciones de carácter general se iniciará por Orden del consejero o consejera titular del departamento competente por razón de la materia sobre la que versen.

Halaber, horren 15. artikuluan ezarritakoaren arabera, xedapen orokorren proiektuak idatzi ondoren, eta dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsultazapideak egin aurretik, testu artikulatuak prozedura hasteko agindua eman duen organoaren aldez aurreko onarpena izan beharko du.

Asimismo, el artículo 15 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General establece que, una vez redactados los proyectos de disposición de carácter general, y antes de evacuar los trámites de negociación, audiencia y consulta que procedan, el texto articulado deberá contar con la aprobación previa del órgano que haya dictado la orden de inicio.

Horiek horrela, honako hau

En virtud de lo anteriormente expuesto,

EBATZI DUT:

RESUELVO:

Lehenengoa.- Aldez aurretik onartzea transen dokumentazio administratiboa arautzen duen dekretu-proiektua.

Primero.- Aprobar, con carácter previo, el Proyecto de Decreto por el que se regula la documentación administrativa de las personas trans.

Bigarrena.- Dekretu-proiektuaren prozedura izapidetzen jarraitzeko agintzea,

Segundo.- Ordenar la continuación de la tramitación del procedimiento del





ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA
Aniztasuna, Bizikidetza eta Belaunaldiarteko
Elkartasun Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO
Dirección de Diversidad, Convivencia y
Solidaridad Intergeneracional

Hasteko Aginduan eta Xedapen Orokorrak
Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren
30eko 6/2022 Legean ezarritako izapideekin
bat etorri, dekretua onartzeko.

proyecto de decreto, de conformidad con los
trámites establecidos en la Orden de Inicio y
en la Ley 6/2022, de 30 de junio, del
Procedimiento del Elaboración de
Disposiciones de Carácter General, a los
efectos de la aprobación del decreto.

Vitoria-Gasteiz, sinaduraren egunean. /

En Vitoria-Gasteiz, a la fecha de la firma.

NEREA MELGOSA VEGA

Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailburua /

La Consejera de Bienestar, Juventud y Reto Demográfico



Lehen zirriborroa, 2026ko ekainaren 18koa

**.../2026 DEKRETUA, ...ren ...(e)koa, pertsona transexualen dokumentazio
administratiboari buruzkoa.**

Bizitza pribaturako eskubidea eta berdintasunerako eta diskriminatua ez izateko eskubidea printzipio juridiko unibertsalak dira, giza eskubideei buruzko nazioarteko hainbat itunetan aitortuak. Nazioarteko erakunde nagusiek emana dute iritzia gai horri buruz -baita Nazio Batuen Erakundeak, Europako Kontseiluak eta Europar Batasunak ere-, eta arau eta aholku batzuk ere eman dituzte, beren estatu kideei gogorarazteko zenbait tresna onartu behar dituztela, sexu- edo genero-identitategati diskriminazioei aurre egiteko eta trans pertsonen erabateko berdintasuna bermatzeko.

Testuinguru horretan, trans pertsonen babesak gero eta garrantzi handiagoa hartu du nazioarteko zuzenbidean. Horra hor, adibidez, nabarmen, Yogyakarta (YP) printzipioak, 2006an idatziak. Printzipio horietan dago zehazturik giza eskubideen nazioarteko legeria nola aplikatu behar den sexu-orientazioari eta sexu- edo genero-identitateari dagokionez. Bada, dokumentu horretako hirugarren printzipioan adierazten denez, nork bere buruarentzat definitzen duen sexu-orientazioa edo sexu- edo genero-identitatea biziki garrantzitsua da nortasunerako, norberaren autodeterminazio, duintasun eta askatasunaren funtsezko alderdietako bat izateaz gainera. Gainera, nazioarteko zuzenbideak aurrera egiten jarraitu du giza eskubideen arloan eta diskriminazio-arrazoien aitorpenean eta interseksionalitatean, eta, aurrerapen horiek txertatzearen, 2017ko azaroan, Yogyakarta printzipioak berrikusi eta zabaltu egin ziren (YP+10). Berrikuspen horren ondorioz, hogeita hamaikagarren printzipioa gehitu zen, hau da, erregistro-aipameneko informazioa dakarten agirietan, informazio hori aldatzeko eskubidea.

Izan ere, Estatuaren eta trans pertsonen arteko harremanean beti izan da baldintzak bete behar bat, abiaburu gisa trans errealitateen kontzeptualizazio patologizatzailea harturik. Ordea, Osasunaren Mundu Erakundearen Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapenak, 2018ko hamaikagarren berrikuspenean, buru- eta portaera-nahasmenduen kapitulutik at utzi zituen, ezabaturik, trans pertsonekin lotutako kategoria guztiak, behin betiko bermaturik utziz trans identitateen despatologizazioa.

Ildo horretan, Europako Kontseiluaren Parlamentuko Batzarrak, 2048 Ebazpenean (2015), estatu batzar-kideei esan zien prozedura bizkorrak, gardenak eta eskuragarriak garatu behar zituztela, autodeterminazioan oinarrituak, trans pertsonen izen eta sexu erregistratuak aldatu ahal izateko jaiotza-ziurtagirietan, nortasun-txarteletan, pasaporteetan, hezkuntza-ziurtagirietan eta antzeko beste dokumentu batzuetan. Hala, orduz gero, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentziak, Giza Eskubideen Europako Hitzarmeneko 8. artikulua aplikatuz (bizitza pribatua errespetatzea eskubidea), garbi-garbi esan izan du trans pertsonen eskubide hori, hots, aukeratzen duten sexu- edo genero-identitatea erakusten duten agiri ofizialak edukitzeko eskubidea, praktikan bermatu beharra dagoela, aurretiaz prozedura medikorik pairatu beharrik gabe, hala nola berresleipen genitalaren ebakuntza edo hormona-terapia.

Bestalde, Estatuan, Auzitegi Gorenak, 2019ko abenduaren 17ko 685/2019 Epaian (Arlo Zibileko Sala), hau ondorioztatu zuen: «pertsona transexualaren genero-identitatea aitortzeko, ezin zaio, baldintza gisa, sexua berresleitzeko ebakuntza kirurgikoa, esterilizazioa edo hormona-terapia jasanarazi», «ezin da pentsatzen jarraitu transexualitatea sendatu



beharreko patologia psikiatrikoa dela», eta «transexualei errazbidea jarri behar zaie sexu- eta izen-aipamena aldatzeko jaiotza-inskripzioan eta gainerako nortasun-dokumentuetan, prozedura azkar eta eraginkorren bidez».

Arauak, gainera, adingabeei ez zien biderik uzten sexuaren erregistro-aipamena zuzentzeko eskatzeko, baina Konstituzio Auzitegiak, uztailaren 18ko 99/2019 KA Eren epaian, martxoaren 15eko 3/2007 Legeko 1.1 artikulua Konstituzioaren aurkakotzat jo zuen (han dago arauturik erregistroan noiz-nola zuzendu behar den pertsonen sexuari buruzko aipamena), debekuaren eremu subjektiboan sartzen zituelako orobat adingabe «aski helduak» eta "transexualitate-egoera egonkorrean" daudenak. Horrela, Konstituzio Auzitegiak erabaki zuen adingabeak eskubide-subjektu izatetik kanpo uzteak esan nahi duela adingabeei kendu egiten zaiela nortasunaren garapen askearen printzipio konstituzionalaren eraginkortasuna, norberaren identitateari buruz erabakitzeari dagokionez.

Hori guztia dela-eta, 2018an, Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiaren 2018ko urriaren 23ko Instrukzioa onartu behar izan zen, hain zuzen ere Erregistro Zibilean pertsona transexualen izena aldatzeari buruzkoa. Aldaketa horren bidez, Erregistro Zibilean izena aldatzea lortzeko baldintza batzuk kendu egin ziren, eta, orain, sexu-identitatearen autodeterminazio askerako eskubideak agintzen du.

Trans errealitateak aitortzearekin loturik arauak izan duten bilakaeraren babesean, Eusko Legebiltzarrak, Autonomia Estatutuaren I. tituluan jasotako eskumenak baliatuz, otsailaren 15eko 4/2024 Legea onartu zuen, Trans pertsonak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa (aurrerantzean, 4/2024 Legea), eta, horrela, ekainaren 28ko 14/2012 Legea indarrik gabe utziz. Arau horrek gai garrantzitsuak biltzen ditu pertsona transek euskal administrazio publikoengandik arreta integrala eta hezkuntzan, osasunean, arlo juridikoan eta beste arlo batzuetan dituzten beharrezkoen egokituak jasotzeko duten eskubidea erabat bermatzeko, gainerako herritarren baldintza berberetan, bai eta pertsona horien pertzepzio sozial eta instituzionalari modu negatiboan eragiten dioten estereotipoak gainditzeko laguntzeko eta gizarte bidezkoagoa, askeagoa, eta pertsona transen tratua- eta aukera-berdintasunean eta aniztasuna balio erantsi gisa onartzean oinarritua lortzeko helburuz neurri zehatzak ezartzeko ere.

Ondorioz, komeni da -zentzuzkoa baita erregulazio berriaren arabera-, arau berri bat egitea, pertsona transexualen dokumentazio administratiboari buruzko 234/2015 Dekretua aldatuko duena. Izan ere, 4/2024 Legeko 9. artikuluan arauz aginduta dagoenez, erregelamendu bidez aukera bat garatu behar da, Estatuko Administrazioaren esku dagoen dokumentazioa aldatzen ez den bitartean transek administrazio-dokumentazio egokia izan dezaten, hartara prozesu horretan integrazio hobea ahalbidetzeko, sufrimendu- edo diskriminazio-egoerak saihestuz.

Dekretu honek, azken batean, gauza bat bermatu nahi du: trans pertsonak tratatuko direla haiek askatasunez aukeratutako genero-identitatearen arabera.

Aurrekoa oinarritzat hartuta, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuaren proposamenez, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren adostasunarekin eta Gobernu Kontseiluak 2026ko xxxaren xx(e)(a)n egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hau

EBAZTEN DUT:



1. artikulua.— Xedea.

Dekretu honen xedea da arauturik uztea pertsona transek zer administrazio-dokumentazio izan dezaketen eta dagokien Erregistro Zibilean sexuari buruzko erregistro-aipamena zuzentzea lortu arte.

2. artikulua. Aplikazio-eremua.

Lege honen bidez araututako dokumentazio administratiboa honako pertsona hauek eskuratu ahal izango dute: Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan bizilekua izanik, otsailaren 28ko 4/2023 Legearen 3. artikuluan xedatutakoaren arabera pertsona transak diren guztiek, erregistroan sexuari buruzko aipamena jada aldatu dutenek izan ezik.

3. artikulua.— Zer organo den eskuduna agiriak emateko eta kudeatzeko.

Askatasun afektibo-sexualaren esparruan pertsonen berdintasun erreala eta eraginkorra sustatzeko eskumena duen zuzendaritzari dagokio dekretu honen bidez araututako dokumentazio administratiboa izapidetu eta egitearekin eta horretarako beharrezkoak diren fitxategien gaineko erantzukizunarekin lotutako egitekoak betetzea.

4. artikulua. - Administrazio-agiriak emateko prozedura.

1.— Interesdunak eskatzen duenean hasiko da dekretu honetan araututako dokumentazioa egiteko prozedura (bere kasa edo ordezkari bidez eska dezake), baldintza hauetan:

a) 16 urtetik gorakoek beren kabuz edo behar bezala ordezkatuta aurkeztu ahal izango dute eskabidea.

b) 16 urtetik beherakoek ere aurkez dezakete eskabidea, baldin eta legezko ordezkarien laguntasuna eta baimena badaukate.

Eskabidea adingabearen gurasoek aurkezten dutenean, biek sinatu beharko dute, salbu eta guraso-ahala haietako bati bakarrik esleitu bazaio, edo adingabearen eta gurasoetako baten artean gatazka badago dekretu honetan araututako dokumentazio-eskabidea aurkezteari dagokionez. Hala bada, eskabidearekin batera, sede elektronikoa dagoen adingabeko interesdunaren eta beste guraso, edo tutorearen arteko gatazkaren erantzunkizunpeko adierazpena ere aurkeztu beharko da, behar bezala beteta.

Adingabea tutoretzapean badago, erakunde publikoak edo tutoretza hori duen pertsonak edo, hala badagokio, pertsona fisikoak aurkeztuko du eskabidea. Tutoretza pertsona batek baino gehiagok baldin badauka aldi berean, guztiek sinatu beharko dute eskabidea, salbu eta adingabearen eta pertsona horietakoren baten artean gatazka badago eskabide hori aurkezteari dagokionez. Hala bada, eskabidearekin batera, adingabeko interesdunaren eta beste guraso, edo tutorearen arteko gatazkaren erantzunkizunpeko adierazpena ere aurkeztu beharko da, ondo beteta.

Familia-harrera iraunkorrean dauden adingabeen kasuan, pertsona edo familia harreragileek aurkeztu ahal izango dute eskabidea, horretarako tutoretza duen erakunde publikoaren berriazko baimena badute.



Borondatezko jurisdikzioaren dagokion prozeduran behar bezala izendatutako defendatzaile judizialak ere egin ahal izango du eskabidea, edo Fiskaltzak, adingabearen defendatzaile judizialaren edo tutorearen izendapenik ez dagoen artean.

2.– Eskabideak eredu normalizatua erabiliz egin behar dira, eta aurrez aurre edo elektronikoki aurkeztu daitezke.

Eskabidea eta dokumentuak aurrez aurre edo elektronikoki aurkeztu izanagatik ere, horrek ez du esan nahi prozeduraren gainerako izapideetan bide hori bera erabili beharko denik; aitzitik, edozein unetan aldatu ahal izango da kanala.

a) Aurrez aurreko kanala:

Eskabideak -eta aurkeztu beharreko dokumentazioa- Eusko Jaurlaritzako Zuzenean-Herriarrentzako Zerbitzuaren bulegoetan aurkez daitezke, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako edozein lekutan.

b) Kanal elektronikoa:

Eskabideak bitarteko elektronikoen bidez aurkezteko, eskabide-inprimakia bete beharko da. Inprimaki hori helbide elektroniko honetan dago eskuragarri:

www.euskadi.eus/servicios/1111202

Eskabidea aurkezteko eta dokumentazioa ekartzeko erabilitako kanala edozein dela ere (aurrez aurrekoa edo elektronikoa), administrazio-dokumentazioa emateko, euskarri fisikoa eta elektronikoa erabiliko dira beti, egoitza elektronikoen bidez.

3. Doakoak izango dira dekretu honetan araututako dokumentazio administratiboa egiteko izapideak.

5. artikulua. – Zer agiri ekarri behar diren.

1.– Eskabidearekin batera, honako dokumentu hauek aurkeztu behar dira:

a) Interesdunaren nortasuna egiaztatzen duen dokumentazioaren kopia. Horretarako, honako dokumentu hauetakoren bat aurkeztu beharko da: Nortasun-agiri nazionala, pasaportea edo atzeritarren identifikazio-txartela. Nolanahi ere, erabilitako dokumentuan argazki bat eta emailearen sinadura agertu beharko dira.

14 urtetik beherakoen kasuan, nortasun agiri nazionalaren bidez egiaztatu ahal izango da nortasuna; adingabe atzeritarren kasuan, aldiz, jatorri-herrialdeko dokumentu baliokidearen edo pasaportearen bidez egiaztatuko da, halakorik badute, eta, hala ez bada, jatorri-herrialdeko familia-liburuaren edo dokumentu baliokidearen bidez, edo Erregistro Zibilaren arduradunak, edo, hala badagokio, jatorri-herrialdeko agintaritza eskudunak emandako hitzez hitzeko jaiotza-ziurtagiriaren bidez.

b) Interesdunaren aurpegiaren oraintsuko argazki bat, nortasun-agirikoaren moldekoa eta koloretakoa.

c) Interesduna bizi den udalerriko udalaren erroldatze-ziurtagiria, gehienez ere dokumentazioa eskatu baino hiru hilabete lehenago egina.

2. – Eskabidea aurkezteak eta erregistratzeak berekin dakar organo kudeatzaileari



berariaz baimena ematea nortasun- eta bizileku-datuak egiaztatzeko eta zuzen ote dauden begiratzeko. Han bestelakorik jartzen badu, dokumentazioa ekarri egin beharko da.

3. – Eskabidean, interesdunaren identifikazio berriari buruzko datuak jaso beharko dira. Identifikazioa nahasia den zehazteko, ez zaio garrantzirik emango izena pertsonaren sexuarekin edo sexu-identitatearekin bat etortzeari. Izena aldatzeko eskaera sexu- edo genero-identitatearen aldaketarekin batera egin ahal izango da. Ondoren ere eskatu ahal izango da, hasierako eskaeran jatorrizko izenari eutsi bazitzaion, administrazio-dokumentazioa berriz bidaltzeko eskaera baten bidez, aurreikusitako prozeduraren arabera. Berriz bidaltzeko eskabideak bitarteko elektronikoen bidez aurkezteko, helbide elektroniko honetan eskuragarri dagoen inprimakia bete beharko da: www.euskadi.net.

6. artikulua. – Prozeduran ordezkari bidez jarduteko.

Ordezkarri bidez jardunez gero, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

1.– Eskabidea egiten duen horrek 16 urte baino gehiago baldin baditu baina ordezkaria behar baldin badu, ordezkari egiaztatzeko, Ahalordeen Erregistro Elektronikoko inskripzioa beharko da, edo, bestela, zuzenbidean baliozkoa den beste edozein bitarteko erabil daiteke, baina ordezkari egon badagoela ziur erakutsi behar du.

2.- 16 urtetik beherakoei buruzko eskabideen kasuan, honela egiaztatuko da pertsona horien ordezkari:

a) Eskabidea adingabearen gurasoek aurkezten badute, beste bi gauza hauek ere ekarri beharko dira: gurasoen adostasun-adierazpen; eta familia-liburuaren kopia, edo ahaidetasuna egiaztatzeko jatorri-herrialdeko dokumentu baliokidearen kopia, edo adingabearen hitzez hitzeko jaiotza-ziurtagiria.

b) Eskabidea gurasoetako batek bakarrik sinatzen badu, dokumentu hauetakoren bat aurkeztu beharko da:

– Ebazpen judiziala, adingabearen guraso-ahala eskusiboki eskabidea aurkezten duen gurasoari esleitzen diona.

- Adingabearen eta gurasoetako baten artean gatazkarik egonez gero, eskabidearekin batera adingabeko interesdunaren eta beste guraso, edo tutorearen arteko gatazkaren erantzunkizunpeko adierazpena adierazpena ere aurkeztu beharko da, behar bezala beteta.

c) Guraso ez den beste pertsona fisiko batek edo pertsona juridiko batek egiten badu eskabidea, honako dokumentu hauetako baten bidez egiaztatuko da adingabearen ordezkari:

- Adingabearen tutoretza eratu izana egiaztatzeko dokumentazioa.
Pertsona bat baino gehiagok baldin badihardu tutore gisa, eta eskaera aurkezteari dagokionez gatazka baldin badago adingabe interesdunaren eta tutoreetakoren baten artean, gatazka dagoela adierazten duen erantzunkizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute tutore gatazka-adierazleek, eskaerarekin batera adingabeko interesdunaren eta beste guraso, edo tutorearen arteko gatazkaren erantzunkizunpeko adierazpena aurkeztuz.



– Defendatzaile judiziala izendatzeko ebazpen judiziala.

d) Familia-harrera iraunkorrean dauden adingabeen kasuan, honako dokumentu hauek aurkeztuta egiaztatuko da ordezkaritza:

- Harrera hori formalizatu dela egiaztatzen duen dokumentazioa.

- Eskaera egiteko baimena, tutoretza duen erakundeak emana.

7. artikulua. – Ebazpena.

1.– Eskabideak ez baditu galdatutako eskakizunak betetzen edo aurkeztutako dokumentazioa ez badago osorik edo akastuna bada, interesdunari eskatuko zaio hamar eguneko epean akatsak zuzentzeko edo nahitaezko dokumentuak aurkezteko. Horrez gain, ohartaraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 artikuluari jarraikiz, eskabideari uko egin diola ulertuko dela, aipatutako legearen 21. artikuluan aurreikusitako baldintzen arabera ebazpena eman ondoren.

Eskatutako dokumentuak zuzentzeko edo aurkezteko zailtasun bereziak daudenean, bost egun gehiagoz luzatu ahal izango da hamar egun balioduneko epea, ofizioz edo pertsona interesdunak eskatuta, eta luzapen hori aplikatuko da, edonola ere, interesduna atzerritarra den eta jatorri-herrialdeari dokumentazioa eskatu behar dion prozeduretan.

2.– Interesduna dekretu honen aplikazio-eremuan sartuta dagoela egiaztatu ondoren, eskatutako dokumentazioa emateko administrazio-ebazpena emango du askatasun afektibo-sexuala errazten duten baldintzak sustatzeko eskumena duen zuzendaritzako titularrak; gutxienez honako datu hauek dituen txartel bat izango da:

a) Izena, abizenak, jaioteguna, sexu- edo genero-identitatea.

b) Espedientearen zenbakia.

c) Txartela noiz egin den.

d) Eusko Jaurlaritzaren zigilu ofiziala.

3.– Hilabetekoa izango da ebazpena eman eta jakinarazteko gehieneko epea, eskabidea izapidetzeko eskumena duen organoaren erregistroan jasotzen den egunetik aurrera. Aipatutako epea bukatutakoan, berariazko ebazpenik eman ez bada, eskabidea baietsitzat joko da, hargatik eragotzi gabe berariazko ebazpena emateko administrazioak duen betebeharra.

8. artikulua. - Dokumentazio administratiboa egitearen ondorioak.

1. – Dekretu honetan arautu den dokumentazio administratiboa emateko ebazpena Eusko Jaurlaritzako sail hauei eta Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publiko hauei jakinaraziko die askatasun afektibo-sexuala errazteko baldintzak sustatzeko eskumena duen zuzendaritzak, salbu eta dokumentazio horren titularra berariaz aurka agertzen bada:

a) Eskatzailea bizi den lurralde historikoko foru-aldundia.

b) Eskatzailea erroldatuta dagoen udala.



- c) Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila.
- d) Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila.
- e) Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila.
- f) Euskal Estatistika Institutua.
- g) Gazteria Saila.

2. – Aurreko apartatuan xedatutakoa alde batera utzi gabe, dokumentazioaren titullarrak eskatu ahal izango du dokumentazioa emateko ebazpenaren jakinarazpena Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuei ere helarazteko, bai eta beste administrazio publiko edo organismo batzuei ere, hala nola Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari, Euskal Unibertsitate Publikoari eta Garraio Partzuergoari, eta eskatzaileak egokitzen jotzen duen beste edozein organo, erakunde edo instantziari. Azken horiek eskabide-orrian sartu beharko dira, ezartzen diren baldintzetan.

3.– Euskal administrazio publikoek, parte hartzen duten kasu eta prozedura guztietan, neurriak hartu beharko dituzte (administratiboak eta bestelakoak), dekretu honen bidez ezarritako dokumentazio administratiboa duten pertsonak librek aukeratutako sexu- edo genero-identitatearen arabera tratatuak izan daitezen eta identitate horri dagokion izenarekin identifikatuak izan daitezen bermatzeko.

Era berean, dekretu honetan araututako dokumentazioaren titullarrek osasun-eremuan ere dokumentazio administratiboa egoki dezaten eskubidea izango dute; salbuespena: Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak pertsona horietaz daukan mediku-historia konfidentzian beharrezkoak diren erreferentziak.

4.– Baldin eta, dekretu honen arabera egindako dokumentazioan, emakume dela jasotzen bada sexu- edo genero-identitateari dagokionez, aipatutako dokumentazioaren bidez egiaztatuko da sexu- edo genero-identitate hori, otsailaren 15eko 4/2024 Legearen 7 artikuluan xedatutakoa aplikatzeko indarkeria matxistaren biktimei arreta ematearen esparruan.

5.– Aurreko paragrafoetan adierazitakoa gorabehera, dekretu honetan aurreikusitako dokumentazioa egiteak ez du aldatuko dokumentazio hori lortzen duen pertsonari dagokion eskubideen eta betebeharren titulartasun juridikoa, ez eta nortasun agiri nazionalaren zenbakia alboratuko ere, zenbakia agertu behar bada.

9. artikulua. - Lehengora itzultzea.

1.- Dekretu honen arabera emandako administrazio-dokumentazioaren titullarrek badute eskubidea dokumentazio hori atzera lehen bezala jartzeko eskatzeko, dokumentazio hori eskuratu aurretik zuten izaera berreskuratzeko.

2.- .Lehengora itzultzeko eskabideak bitarteko elektronikoen bidez egingo dira, eta 4. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera izapidetuko dira.

Lehengora itzultzeko eskabidea gailu elektronikoak erabiliz aurkezteko, helbide elektroniko hau erabiliko da: www.euskadi.eus/servicios/1111204



10. artikulua. - Identifikazio-txartela berbidali.

1. – Dekretu honetan emandako dokumentazio administratiboa berbidali ere egin daiteke, baldin eta txartela galdu edo ostu egiten badute, argazkia aldatu egin behar bada, edo dokumentazioa emateko eskumena duen zuzendaritzaren aburuz arrazoizkoa den beste arrazoi bat tarteko bada. Berritzeko eskabidea interesdunak edo haren legezko ordezkariak egin behar du.

2.– Halaber, dokumentazio administratiboa berriro bidaltzeko eskatu ahal izango da, interesdunaren izena egokitzeko, baldin eta, dokumentazioa jatorrizko izena mantenduta eman ondoren, hura aldatzeko eskatzen bada.

3. – Berbidaltzeko eskabideak bitarteko elektronikoen bidez egingo dira, eta 4. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera izapidetuko dira.

Berbidaltzeko eskabideak bitarteko elektronikoen bidez aurkezteko, helbide elektronikoa honetan eskuragarri dagoen inprimakia bete beharko da:

www.euskadi.eus/servicios/1111203

XEDAPEN IRAGANKORRA. IZAPIDETZEN ARI DIREN PROZEDURAK:

Dekretu hau indarrean jarri aurretik aurkeztutako eskabideak, ebatzteke badaude, dekretu honetan jasotako aurreikuspenen arabera izapidetu eta ebatziko dira.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA. ARAUAK INDARGATZEA:

Indargabetuta geratzen da 234/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, transexualen dokumentazio administratiboari buruzkoa, bai eta dekretu honetan ezarritakoaren aurka dauden maila bereko edo beheagoko xedapen guztiak ere.

AZKEN XEDAPENA. INDARREAN JARTZEA:

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Primer borrador de 18 de junio de 2026

DECRETO .../2026, de ... de, sobre la documentación administrativa de las personas trans.

El derecho a la vida privada y a la igualdad y no discriminación son principios jurídicos universales reconocidos en numerosos tratados internacionales sobre derechos humanos. Las principales organizaciones internacionales, incluyendo la Organización de las Naciones Unidas, el Consejo de Europa y la Unión Europea, se han posicionado sobre esta cuestión, adoptando normas y recomendaciones que inciden en la necesidad de que sus Estados miembros aprueben mecanismos para hacer frente a las discriminaciones por razón de identidad sexual o de género y para garantizar la igualdad plena de las personas trans.

En este contexto, la protección de las personas trans ha adquirido una relevancia



